



BALIO PROPOSAMENA

Zerbitzu honen sortzaileok, arazo bat genuela antzeman genuen, izan ere, arropa asko dugu, eta hori zein den batzuetan jakin ere ez. Gainera, beti arropa berdina janzten dugu, eta beti konbinaketa berdinekin, erosotasuna eta azkartasuna baita garrantzitsuena.

Beraz, buruari bueltak emanez, APP berritzaile bat sortzea erabaki genuen WEARME aplikazioa, gure arazoari konponbide berezi bat emanez.

Aplikazio honen bitartez, armairuan dagoen arropa guztia zein den kontrolatu dezakegu, argazkiak atera eta bertan gordetzen baita jantzi bakoitza. Bestalde, outfit ezberdin bat bilatzen du egoeraren arbera eta armairuko arropa guztia erabiltzen du.

Konbinaketa berdinekin bilatzen genuen erosotasun eta azkartasuna bermatu egiten da, izan ere, WEARMEekin, azkar lortu dezakezu eguneko janzkera eta gainera, ez duzu pentsatu behar, berak egiten baitizu dena, erosotasuna bermatuz.

Horretaz gain, ingurumena zaintzen da, arropa berria erostea ekiditen dugulako. Askotan, outfit berdinak egiten ditugunez, berritasun hori galdu egiten da, eta janztearena ere, errutina bilakatzen da. Horri irtenbide bat bilatzeko, normalean arropa berria erosten dugu, eta ordurarte erabilitakoa armairuan gelditzen da, berriro atera gabe.

Bestalde, VINTED bezalako aplikazioarekin harremana dauka, gure APPak bertara bideratuko zaituelako erabiltzen ez duzun edo iada gustatzen ez zaizun arropa saltzeko.

Guzti hau kontuan hartuta, WEARMEk eskaintzen duena, arropa berri hori ez erostea eta arropa erosketa jeistea da, bigarren eskuko salmentari aukera emanez. Izan ere, arropa da gehiegizko erosketarik ohikoena, hau ingurugiroarentzat, planetarentzat eta bertan bizi garenontzat oso kaltegarria izanik.

Berritasuna eta freskotasuna da APP honek eskaintzen duen beste ezaugarrietako bat, ez baitago horrelako beste aplikaziorik. Antzekoak badaude, armairua antolatzeko, edota arropa salerosteko, baina gure aplikazioak duen osotasun oso hori ez du beste inork.



BERAZ, EROSOTASUNA ETA AZKARTASUNA BERMATZEN JARRAITU NAHI
BADUZU, ETA OUTFIT BERRITZAILEAK NAHI BADITUZU... DESKARGATU
WEARME!!!

